

Gazteak justiziaren egoeraz arduratuta: justizia alternatiboarekiko beren apustua

(Young people worried about the situation of justice: their proposal in favour of alternative justice)

ORDENANA GEZURAGA, Ixusko

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Sarriena, z/g
48940 LEIOA
ixusko.ordenana@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 19; 59-62]

Andorengo lerroetan joandan urteko azaroak 18-20 bitartean ospatu zen Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresura Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko bost ikasle taldek egindako ekarpena aztertzen da. "Justiziaren eta gizartearen artean: justizia alternatiboa; "defentsa-bulegoen" eta beste bitartekari batzuen zeregina" deituriko ardatzaren eremuan, bitartekaritza familiarra, unibertsitateko defendatzailea, kirol arbitrajea eta turismo arbitrajea landu ziren. Guztiak liskarrik epaibidetik kanpo ebazteko tresna egokitzat jotzen dituzte ikasleek.

Giltza-Hitzak: Justizia alternatiboa. Bitartekaritza familiarra. Unibertsitateko defendatzailea. Kirol arbitrajea. Turismo arbitrajea.

En las líneas que siguen se analiza la aportación realizada por cinco grupos de estudiantes de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco al XVII Congreso de Eusko Ikaskuntza celebrado del 18 al 20 de noviembre del pasado año. En el ámbito del eje denominado "Entre la justicia y la sociedad: la justicia alternativa; la función de los 'despachos de defensa' y de otros intermediarios", se trabajó en la mediación familiar, el defensor de la universidad, el arbitraje deportivo y el arbitraje turístico. Los estudiantes juzgan que todos ellos constituyen una herramienta adecuada para solucionar las disputas fuera del juzgado.

Palabras Clave: Justicia alternativa. Mediación familiar. Defensor de la universidad. Arbitraje deportivo. Arbitraje turístico.

Les lignes qui suivent font état de l'analyse de la contribution de cinq groupes d'étudiants de la Faculté de Droit de l'Université du Pays Basque au XVIIe Congrès de la Société d'Études Basques "Eusko Ikaskuntza" qui s'est déroulé du 18 au 20 novembre dernier. "Entre justice et société : une justice alternative ; dans le champ d'étude intitulé "mission des bureaux de défense et autres médiateurs", la médiation familiale, le défenseur de l'Université, l'arbitrage sportif et l'arbitrage touristique ont fait l'objet de travaux. Les étudiants les considèrent tous comme des outils permettant un règlement des conflits en dehors de la voie judiciaire.

Mots-Clés : Justice alternative. Médiation familiale. Défenseur de l'Université. Arbitrage sportif. Arbitrage touristique.



Pasadan urteko azaroaren 18-20 bitartean, Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua ospatu zen Gasteizko Europa Biltzar eta Erakusketa Jauregian. Beti bezala, egungo gizartearen erronka nagusiei erantzuteko asmoarekin, oraingo honetan, Eusko Ikaskuntzak gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza hartu zuen hizpide. Solasgai nagusi honen barnean, bereziki, arlo zehatz batzuk aztertu ziren; hala nola, guztionari balio handiagoa ematea, gizarte solidarioa, berrikuntza, genero sistema, gizarte memoria, bizi-kalitatea, gizarte tentsioa, globalizazioa eta justizia. Legelari moduan, guri bereziki interesatzen zaigun azken arlo honen barnean, nahiz eta aurreko guztiek ere Zuzenbidearekin harreman zuzena izan, bi objektu nagusi proposatu zituzten antolatzaileek: batetik, “Justizia administrazioa eta hiritarrak elkarren artean komunikatzeko moduak eta formulak: gaiaren egoera eta etorkizuneko erronkak”; eta, bestetik, “Justiziaren eta gizartearen artean: justizia alternatiboa; “defentsa-bulegoen” eta beste bitartekari batzuen zeregina”. Kongresuaren barnean antolatu zen Gazte Foroa, Eusko Ikaskuntzak, Zuzenbidearen arloan, gazteen bilgune eta eztabaidarako parada bezala planteatua, azken gai honen ildotik abiatu zen. Hurrengo lerroetan honen nondik norakoak kontatuko ditugu.

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko bost ikasle taldek parte hartu zuten Eusko Ikaskuntzako XVII. Kongresuko gazte-foroan; bi, gipuzkoarrak eta, beste hiru, bizkaitarrak. Guztiek, Zuzenbide Prozesala ikasgaiaren eremuan, justizia alternatiboaren inguruan gai zehatz bat aukeratu eta irakaslearen laguntzarekin ikerketa lan bat burutu zuten. Honen emaitzaren berri eman aurretik, komenigarri da egun gure ordenamendu juridikoan justizia alternatiboak bizi duen egoeraz –zalantzarik gabe, ikasleak gai honen inguruan ikertzeraz bultzatu zituen arrazoiak–, zenbait hitz esatea.

Gure ordenamendu juridikoan liskarrak ebazteko gehien erabiltzen den bideak, Epai Botereak egikaritzen duen funtzio jurisdikzionalan oinarritzen den sistema jurisdikzionalak alegia, krisi latza bizi du. Juristek, orokorrean, ez ezik, egunkariak beraiek ere, egunero bere eraginkortasuna zalantzatzen jartzen dute: epaileak lanez gainezka omen daude, kasuak ebaztean atzerapen handiekin arituz; ematen dituzten erabakiak ez omen dituzte askotan herritarrak asetzen: kostu handiegiak dituela-eta, betearazpenak askotan ezerezean gelditzen direlako..., asko dira entzuten diren gaitzespenak. Testuinguru honetan, jurisdikzioaren inguruko eztabaidak, jurista eta jurista ez direnen esku hartzearekin,

kezka edo ardura nagusi bat erakusten du: nola hobetu jurisdikzioa? Nola indartu gaixorik dagoen Estatuko eta gure ordenamendu juridikoaren ardatz nagusietako bat? Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuaren izenburuaren ildotik, gizarte aurrerapen iraunkorrerako ezinbestekoa den kontu baten aurrean gaude, eta bere inguruan doktrina, nagusiki, zati bitan banatuta agertzen da. Batzuen aburuz, jurisdikzioaren akats eta ahulezien konponbidea berau baliabide materialekin hornitzea da. Hauen ustez, epaile eta magistratu eta epaitegi kopurua gehituz eta haiei bere lana egokiro burutzeko baliabideak emanez (informatikaren normalizazioa, bulego judizialaren antolaketa egokia,...) jurisdikzioaren gaitz gehienak desagertuko dira. Bigarren taldearen iritziz, aldiz, aurrekoen sendabidea ez da egokia, nahiz eta jurisdikzioa baliabide gehiagorekin hornitu, gatazka mailak beti gaindituko duelako haren jarduteko gaitasuna, egungo gizartea oso jurisdikzionalizatuta dagoela azpimarratuz. Azken hauen irudiko, liskarrak ebazteko epaibidea indartzeko ezinbestekoa da jurisdikzioz kanpoko metodo edo teknika alternatiboak garatzea. Prozedura hauek, jurisdikzioak daraman hertsapena alde batera egin eta alderdien arteko adostasuna eta elkarriketa dute oinarri, tirabira juridikoaren protagonistei beren desberdintasunak ebazteko aukera emanez. Horrela, bigarren iritzi nagusi honek, liskar juridikoak ebazterakoan, bide jurisdikzionala eta jurisdikzioz kanpokoak uztartu behar direla mantentzen du, horretarako beharrezkoak diren lege aldaketak eskatuz.

Testuinguru honetan, Donostiako Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Diego Gonzalo Díaz de Villafranca, Xabier Rezola Garcandia, Ivonne Rivas Olaizola, Gaizka Malo Elcoro-Iribe eta Alberto Martín Hernández ikasleek osatutako taldeak bitartekaritza familiarra aztertu du. Tirabirak konpontzeko metodo hau, herritar guztiei justiziarako sarbidea bermatzeko, jurisdikzioz kanpoko konponbideen suspertzea aldarrikatzen duen *Alternative Dispute Resolution* (ADR) deritzon mundu mugimenduan kokatu ondoren, Espainiako historian dituen aurrekariak aztertu dituzte. Zehazki, bitartekaritza familiarra “senitarte liskarrak ebazteko borondatezko, epaibidez kanpoko eta epaibidearen osagarri den prozedura” bezala definitu dute. Haren ezaugarrien artean, bere borondatzeko izaera eta isilpekotasuna azpimarratu dituzte. Bereziki nabarmendu dute bitartekaritza familiarrean aritzen den hirugarrena, alderdiei *intra partes* liskarra ebazten laguntzen dien norbanakoa, inpartziala eta neutralaz gain, profesionala behar duela izan. Ideia guzti hauek egun Espainiako hainbat Erkidego Autonomoetan indarrean dauden bitartekaritza familiarrari buruzko legeen islan aurkeztu dituzte. Bereziki begiratu dute



Ikasle talde batek bere ondorioak aurkezpen. Gasteiz, 2009.11.18 (Iturria: Eusko Ikaskuntzaren Argazki Bilduma).

Euskal Autonomia Erkidegoan gaia arautzen duen 1/2008, otsailak 8ko, bitartekaritza familiarraren legea. Azkenik, beren ikerketaren ondorioen artean, Erkidego Autonomoek bitartekaritza familiarra indartzeko egindako ahalegin guztiak txalotu dituzte, teknika hau, “etxeko sua etxeko hautsez estali behar dela” dioen euskal esaera zaharraren ildotik, familia liskarrak isilpean ebazteko sarri askotan bide egokia dela mantenduz.

Donostiako bigarren taldeak –Igor Martínez Ruizek, Mikel Izquierdo Eliceaguek, Maialen Saizar Pascuak, Erlantz Agirre Antúnezek, Joseba Salegi Cruzek eta Marta Amondarain Eskibelek osatua– “Unibertsitateko defendatzailea ADR tekniken adibide gisa” gaia ikertu du. Lan bikain batetan, lehenbizi, ebatzi beharreko liskarra aurkeztu dute: unibertsitatean ematen den gatazka, unibertsitate gatazka alegia. Ezin uka daiteke unibertsitatean egunero aritzen diren hiru pertsona taldeen (ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzu pertsonala) arteko liskarrak ugariak direla. Zentzu honetan, unibertsitatea “mundu bat” dela aitortzen dute, haren konplexutasuna hainbat liskarren iturri dela mantenduz. Unibertsitate gatazka, izatez, txarra ez dela adierazten dute, eta arrazoitzen dute “unibertsitate gatazkak aldaketa eta garapenerako aukera gisa hartu behar direla, ez arazo gisa”.

Jurisdikzioa unibertsitate gatazka ebazteko bide bakarra ez dela, eta berau ebazteko, ADR tekniken artean existitzen den unibertsitate defendatzailearen figura aztertzeagatik apustua egiten dute. Bereziki azpimarratzen dute 2001ko abenduaren 21eko Unibertsitateen Lege Organikoan jaso zela berariaz Unibertsitateko defendatzailearen erakundea. Honen bitartez, unibertsitateen autonomian barneratuz, aipatutako ikasle hauen irudiko, legelariak haien esku beste kontrol sistema bat jartzen du. Bere garrantziaren isla, datu bat ematen dute: 1998an 18 unibertsitatek zuten erakunde hau, eta bi urte beranduago, 28 unibertsitatek defendatzaile propio bat arautu zuten. Bere lanari erreparatuz, unibertsitateko defendatzailea 4 printzipioekin bat jardun behar duela mantentzen dute: independentzia, inpartzialitatea, konfidentzialitatea eta informalitatea. Oro har, Espainiako beste unibertsitate batzuetako defendatzaileen araudia kontutan hartzen badute ere (bereziki, 2003/15, abenduaren 22ko Andaluziako Unibertsitateen legea eta 2005/3, apirilaren 25ko Murtziako Unibertsitateen legea), Euskal Herriko Unibertsitateko “aldezelearen” –horrela deitzen da Euskal Herriko Unibertsitateko defendatzailea– eraentza juridikoa bereziki aztertzen dute. Zehazki, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuetako (2003/2322 dekretua, abenduaren 23koa), zazpigarren

kapituluko bigarren tituluan jasotzen den araudiari (105-109 artikulua bitartean) erreparatzen diote. Haren hautaketa, lan-taldea, pribilegioak eta funtzionamendua aztertzen dituzte luze eta zabal. Guztia erekin, mantentzen dute "ADR teknikak, eta bereziki, Unibertsitate Defendatzaileak burutzen duen bitartekari lanak gatazkan parte diren alderdiak prozeduraren beraren, eta baita lortutako adostasunaren protagonistak sentitzea dakarrela".

Leioan, Bizkaian, Euskal Herriko Unibertsitateak daukan Zuzenbide fakultateko ataleko hiru ikasle taldek parte hartu dute Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuaren gazte foroan, nahiz eta ikerketa gaiak bakarrik bi izan, talde bik objektu beraren inguruan ikertzea erabaki baitzuten: kirol arbitrajea eta turismo arbitrajea.

Kirol arbitrajea behatu dute Mikel Davilak, Jon Aranbarrik, Xabier Isasik, Aratz Ramírez de la Pisciñak eta Xabier de la Mazak, bereziki kirol arbitrajeko Euskal epaimahaiaren nondik norakoei erreparatuz. Horretan sartu aurretik, kirol arbitrajea, ADR filosofian eta, orokorki, arbitrajearen kokatu dute. Lehenengoaren inguruan bere ezaugarri nagusia "gatazka juridikoen konponbiderako bideen dibertsifikazioa" dela nabarmendu dute, herritarrei beren gatazka ebazteko hainbat prozedura edo teknika eskainiz, haiek, kasuan kasuko eta bere egoera zehatzei so eginez, gehien komeni zaiena aukera dezaten. Ikaslearen esanetan, baina, arbitrajea orokorrean, hirugarren batek era loteslean, gauza epaituaren ondorena daukan eta epaibidean betearazgarri den laudo baten bidez, liskarrak ebazteko bidea da. Kirol arbitrajeko Euskal epaimahaiaren zentratuz, organo hau Euskal Kirol Federazioen Batasunaren (EKFB) menpekoa dela argitzen dute. EKFB Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak 10.36 artikuluan jasotzen duen kirolaren inguruko eskumen eskusiboaren garapenean emandako 1998/14 kirol legean aurreikusten omen da. Kirol arbitrajeko Euskal epaimahaiaren organoak (batzorde betearazlea, arbitraje gortea eta idazkaria), eta kasuan kasuko eman behar den arbitraje hitzarmena aztertu ondoren, epaimahaiak ezagutu ditzakeen liskarren zerrenda aurkeztu dute: (1) klubaren barnean eta kirol taldeen edo federazioen barnean sortutako auziak, (2) klubaren eta kirolariaren artean sortutako auziak, (3) klubaren artean sortutako liskarrak, (4) federazioen eta klubaren edo kirolariaren arteko harremanetan sortutakoak, (5) babesleen eta federazio, klub edo kirolariaren arteko harremanetan sortutakoak, (6) kirol ekitaldien antolatetari dagokionez, pertsonen eta erakundearen arteko erlazioetan sortutakoak, eta (7) antolatetarik edo izaera pribatuko gertaera batetik (kirol federazioen barnean ez dauden liga profesionalak; olgetarako

kirol gertaeren antolaketa, etab.) datorren edozein gairekin (lehiaketak, diziplina, kontratuak, erantzukizun zibila,...) harremanetan duten pertsona edota erakundearen arteko harremanetan sortutako liskarrak. Berariaz, nabarmentzen dute 4 kasutan ezin dela arbitraje hau erabili: (1) ebazpen judizial irmo bat dagoenean liskarri buruz, (2) kirol diziplinaren edo administrazio publikoaren kirol federazioei eskuordetza eman dioten izaera administratiboko edozein funtzio publikoetan eragina dutenean, (3) Ministerio Fiskalak parte hartu beharreko kasuetan eta (4) kirol gaiekin edo gai juridikoekin harreman zuzenik ez duten gaiekin. Bizkaitar hauen esanetan, hainbeste dira Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren bertuteak (azkartasuna azpimarratzen dute bereziki, kirolean gatazkak ebazteko ezinbestekoa suertatzen den heinean) berau bultzatzeko beharra ezinbestekoa gertatzen dela.

Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuko gazte-forora aurkeztutako azken gaia turismo arbitrajea izan da. Aipatu bezalaxe, bi taldek landu dute gai hau, Josune Barrenak, Enea Ispizuak, Libe Kobeagak eta Oiane Lunak osatutakoa lehenengoa; eta bigarrena, Verónica Cabidak, Ziortza Calvok, Laura Díazez, Aitor García, Carlota Gómezek, Ariadna Martínek eta Lara Pererak osatutakoa. Bai batetik bai besteak, lehenbizi, kontsumo liskarra definitu dute, egungo gizartean, kapitalismoaren eta kontsumo merkatuaren gizartean gehien ematen den tirabira dela baieztatuz. Bi taldeek turismo gatazka kontsumo gatazka mota bezala definitu dute. Liskar hau ebazteko bide jurisdikzionalak aurkeztu dituen akatsak (atzerrian ematen direnean bertako hizkuntza eta legeen ez jakitea, garestia dela, askotan erreklamazioaren zenbatekoa baino askoz diru gehiago kostatuz, geldoa dela,...) aztertu ondoren, helburu berarekin bide administratiboa erabili badaiteke ere, honek ere kontsumitzailearentzat ahuldadeak erakusten dituela demostratuta (batez ere, enpresa urratzaileei zehapen bat jartzen zaielako baino kontsumitzaileei ez zaielako inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik aintzatesten), liskar hau ebazteko biderik egokiena arbitrajea dela aldarrikatzen dute. Beren esanetan, arbitrajea borondatezkoa, azkarra, eraginkorra, doakoa eta betearazpenezkoa da, berau erabilita kontsumitzailea eta enpresaria, biak, irabazle ateratzen direla mantenduz. Turismo arbitrajearen aritzen diren subjektuak aztertu ondoren, honen prozeduraren faseei so egin diete. Ondorio nagusi gisa, bi taldeek, krisi ekonomiko garai honetan, gure ekonomiaren esperantza izan daitekeen turismo arloan, arbitrajea bereziki indartu behar dela mantentzen dute.